

Hizpide

Historia pixkat egin eta Euskal Herriko ilustraziogintzari buruzko ikuspegi aski zabala izateko, interesgarria da XX. mende hasierako artistak ezagutzea, prentsa, aldizkari, liburu, txartel eta beste publikazio batzuetan ideia eta lanak eskaini baitzituzten.

Euskal Herriko ilustraziogintzaz

BELÉN LUCAS

(Bilbo, 2000ko azaroan)



Antton Olariaga

Aurtengo martxoan Bidebarrietako liburutegiak erakusketa bat eskaini digu: HERMES. Revista del País Vasco. Bilbao, 1917-1922. Horrekin batera, Bidebarrieta Kulturgunek izenburu bereko liburua argitaratu du katalogo moduan edo. Joseba Agirreazkuenaga, Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Garaikidean katedraduna da egilea. Erakusketa eta liburua eratu eta dokumentatzeko orduan, egilearekin elkarlan estuan aritzeko aukera paregabea izan dut. Horrela egiaztatu ahal izan dut artista haiek –pintoreak horietako batzuk– kalitate handia eman ziotela Euskal Herriko argitaratze-munduari. Haiek izan ziren gaur Ilustratzaile eta Diseinatzaile Grafiko deitzen ditugunen aitzindari.

↪ Hizpide ↪



Txiki



Txiki

Liburu eta irudien inguruan lan egiten dugunontzat, Bidebarrietan ikustalditxo bat egin eta duela ehun urteko publikazio hauekin gozatzea benetan da atsegina. Eta ilustratzaileontzat zehazki, gure aurrekoen lana ezagutzea ezinbestekoa da ia. Tradizio honekiko sentibera izateak aberastu egiten gaitu berritzaile eta originalak izateko. Ilustratzen dugunok, pintoreek bezala, ez dugu hutsean sortzen. Garaikide ditugun beste sorkuntzetatik eta iraganeko tradizio artistikoetatik jasotzen dugu bultzada; haien aurka jotzen dugunean ere, dependentzia erakusten ari gara.

Eta Hermes aldizkariari egiten diogun begirada honetan ikus dezakegu bere orrialdeetan agertzen ziren artista guztiak 1911n Bilbon sortutako «Asociación de Artistas Vascos» elkarteko kide zirela. Elkarrekin honetako antolatutako erakusketek artista ezagunen lanak erakutsi zituzten eta gazteagoentzako oholtza izan ziren garaiko kultur giro aberatsa areagotzeaz gain. Baina benetan deigarria iruditu zitzaidana da askoren arteko erakusketek sail ezberdinak zituztela izan, alegia: pintura, eskultura, arkitektura eta marrazketa. Hortik ondorioztatzen da orduko artistek onarpen sozial zabala zutela, galdu egin dena eta oraindik guztiz berreskuratu ez dena gaur egungo irudi-kontsumo izugarria gora-behera.

Bon, Bagaría, Mauricio Flores, Nemesio Sobrevila, Antonio de Güezala, Felix Agüero eta Aurelio Arteta bera dira artista horietako batzuk. Urte haietan prentsa eta aldizkarietan egin zuten beren lana; urte batzuk geroago gure ipuin-ilustratzaile ere izango ziren.

Arabako Foru Aldundiak 1997 urtean argitaratutako Haur eta Gazte Literaturako Ilustratzaileen katalogoan, Xabier Etxanizek dio euskal haur literaturako lehen lana 1804koa dela. Emakume bat, Bizenta Mogel, da *Ipui onac* izeneko liburu honen egile, baina egiaztatu ahal izan dudanez, liburuak ez ditu ilustrazioak. Hau da euskaraz idatzitako haur literaturaren hasiera baina denbora joan zen gaur ezagutzen dugun ilustratzaile profesionala agertu zen arte.



Txiki

↪ Hizpide ↪



Txiki

Egia da mende hasierako egunkari batzuetan agertzen zirela tira komikoak, komikiaren aurrekoak, oso ezagun bihurtu ziren pertsonaiekin. Ez dut uste, ordea, haurrentzako sortuak zirenik, ustekabeen hauen eskuetara ere iritsiko ziren arren. Hogeiko hamarkadan artean analfabetismo maila oso handia zela kontuan izanda –Bizkaiko biztanleen %40a–, suposa daiteke helduek ez zutela masiboki prentsa esku artean izango, eta askoz ere gutxiago haurrek.

Badirudi Euskal Herriko haur-ilustraziogintzari buruzko erreferentzia guztiek sorburu bera dutela, John Zabalo Ballarin, *Txiki*, alegia. Manchester-en 1892an jaioa, Donostian bizi izan eta lan egin zuen denboraldi batez ilustratzaile lanean. Komiki, txartel eta ipuin ekoizpen handia utzi zuen. Eta bere izenburuetako batzuk oso ezagunak izan ziren: *Txomin Arlote*, *Antxerti*, *Poxpolin* edo *Xabierto* esaterako.

Interesgarria da ikustea bere marrazkietako batzuk, mende hasierako artearekin oro har gertatzen den bezala, oso gaurkoak gertatzen direla. Marrari eta kolore lauei ematen dien erabilerak irudi garbia lortzen du, indar handikoa, barruko irudiak bainoago liburuen azaletakoetan, gaur egun diseinu grafikorako erabiltzen diren programen bidez (ilustratzaile gehienek erabili ohi dituztenak; Freehand, adibidez) lortutakoen antzekoa batzuetan. Testurak erabiliz aberasten zituen zenbait marrazki, *Xabierto*-ren koloretako bertsioan ikus daitekeen bezala.

Puntu honetan haur literaturaren ekoizpen editoriala abian zegoen eta, gudek ezarritako hutsarte hirurogeiko hamarkadara arte luzatu bazen ere, *Txiki* berriz izan zen Euskal Herriko haurrentzako ilustraziogintzaren abiapuntu. Ia berrogei urtez bete zuen *Txiki* haur ilustrazioaren gunea, 1948an Londresen hil zen arte.

Hirurogeiko hamarkadan Ikastolek izan zuten ugaritzeak bizkortu egin zuen euskaraz argitaratze prozesua, hala eskola materialean nola haur eta gazte literaturan. Ikastoletako ikasgeletatik irakurle asko irten



Txiki



Txiki

↪ Hizpide ↪



Txiki



J. C. Egillor

dira, eta eskari hau izan du oinarri Euskal Herriko egungo merkatu editorialak.

Harrigarria da une horretatik aurrera haur eta gazteentzako ilustrazioak gure herrian izan duen bilakaera azkarra. Eta are harrigarriagoa da bi faktore kontuan hartzen baditugu. Bat: haur literatura beraren historia berri samarra zen ikusi dugun bezala, eta urria luzaroan. Eta bi: testuak ilustratzeko, profesionalek ez dute edizioaren munduan trebatzeko Eskola edo Zentrorik. Egia bada ere batzuk 1978an sortutako Arte Ederretako Fakultateak datozela (lehen Arte Ederretako Eskola zenetik), gehienak autodidaktak dira. Batzuek eta besteek testuetara egokitu behar izan dute beste adierazpen artistiko mota batzuetatik.

Behin eta berriz izan dute euskal ilustratzaileek komikirako joera, hirurogeiko hamarkadan hasi eta gaur egungo argitalpenetaraino. Komikia gizonetako kontsumitu izan dute batez ere; hau izan daiteke beharbada, egun ilustratzaile emakumeen kopurua urri samarra izatearen zergatietako bat. Komikien hasiera hogeiko hamarkadan kokatu behar da *Eusko Deya* egunkariko «Tales eta Niko», edo beranduago «Poxpolin» edo «Eusko Gastetxu» bezalako pertsonaia maitagarriekin. Badirudi, irudi hauek umorez beteak eta ulerterrazak zirenak, azkar egokitu zirela irakurleengan, komikiaren berarizko hizkuntzarekiko gustua bereganatu zutelarik irakurleek, eta ilustrazioaren gunea bete dute Txikirengandik egungo ilustratzaileenganaino.

Hirurogeiko urteetakoak dira Asun Balzolak argitaratutako lehen lanak. Zenbait arrazoigatik, Euskal Herri barruko eta mugaz harantzagoko ilustraziogintzako handienetakoa da. Bere lan zabala da arrazoi horietako bat, 1996an bazituen-eta ehun ipuin inguru. Beste arrazoi bat, dudarik gabe, beste herrialde batzuetan argitaratzean, bere lanak izan duen nazioarteko islada. Eta azkenik, ilustraziogintzan dabilenetik jaso dituen sari ugari eta nabarmenak daude. Asun Balzola, ipuinak eta testu liburuak ilustratzeaz gain, Diseinu Grafikoaren eta Publizitatearen munduan ere ibili izan da. Idatzi egiten du, liburu batzuk argitaratu ditu eta zenbait ilustratzailearen ametsa errealitate bihurtu du berari dagokionez: bere testuak ilustratu ditu.

Bere lanetik nabarmenduko nuke, batetik, berezko hizkuntzaren sor-kuntza, eta geroagoko ilustratzaile batzuentzat erreferente izan dela. Bestetik, bere karreraren zehar erakutsi duen esperimintatzeko ahalmen handia, teknologia berrien erabilera barne. Bukatzeko, esango dut Asun Balzola-aren lan praktikoa bere etengabeko hausnarketari estuki lotua dagoela, liburu ilustratuaren gure mundu honetan kontuan hartzeko diskurtso teorikoa sortu duelarik.

Beranduago Antton Olariaga agertu zen, ibilbide luze eta zabala duen gure ilustratzaileetako beste bat da. Komikia menperatzeaz gain (egunkari


↻ Hizpide ↻

eta aldizkarietan urtetan zehar aritu izanaren fruitu), publizitatea eta diseinuarekin zerikusia duten beste jarduera batzuk garatu ditu. Egile honen marrazkiaren teknika bikainak bere irakurleen hizkuntza eta adin ezberdinei zehaztasunez egokitzen uzten dio. Bere sorkuntza naharoak uneko argitaratze ekoizpenarekin egiten du bat; euskaraz idazten duten idazleek aberastutako giroak liburu horiek ilustratzeko marrazkigileak behar zituen.

Garai beretsukoa da Jon Zabaleta, komikiaren mundutik datorren beste egile bat, eta, Olariagak bezala, lan oparoa duena. Pertsonaia mai-tagarriak utzi ditu eguneroko prentsan, eta ipuinetan bezala komikietan ere, dibertsio eta mugimendu giroa sortzen du, ikusmenerako jolasa. Prentsan duten esperientziagatik artista bi hauek maisutasun handiz ilustratzen dute zuribeltzean. Baina Zabaletak koloretan argitaratzen dituen irudiek oso paleta anitza eta alaia dute.

Argitaletxeek, etengabeko hazkunde honek bultzatuta, formato handiko argitalpenak egin zituzten, lanen aurkezpena errazten dutenak euskarri zoragarria emanez, eta egileari uzten diotenak testuarekiko menpekotasun harremana hausten. Horrela, egile hauek ilustratutako albumak agertu ziren. Juan Carlos Egilleor-ek ere aldeko zuen egoera hau. Hirurek zuten egunkarietako tira komiko eta pertsonaiak ondo ezagutzen zituen publiko heldua, hain garestiak diren album horien erosle izango zena nolabait.


Liburu mota hauek gero eta gutxiago argitaratu dira, eta desagertu egin dira ia gaur egun. Erantsi beharreko eragozpena da euskaraz argitaratzerakoan ohiko diren kopuru murrizak. Orokorra da arazoa; albumak argitaratzen tradizio handia duten herrialdeetan ere nabaritzen da.




Asun Balzola




Luis Alonso



Antton Olariaga



Antton Olariaga



Antton Olariaga

↪ Hizpide ↪



Jesus Lucas

Eta ez dirudi oraingoz konponbide argirik duenik. Egile, argitaratzaile, liburu-saltzaile, liburuzain eta abarren artean irekita dago eztabaida hau, eta hurbiletik jarraitzen dugu honen bilakaera.


Baina itzul gaitezen gure ilustratzaileengana. Juan Carlos Egilleoren nabarmendu beharko genuke bera izan zela ilustraziorako lan tresna bezala teknologia sartu beharraz konturatu zen lehenengoetako bat. Bere marrazkiak ordenadoreak eskaintzen dituen aukerekin konbinatu izanak emaitza harrigarriak izan ditu. Collagea eta ilustrazioetan testuaren erabilera egile honen ekoizpenaren ezaugarrietako bat dira. Espazio personal eta bakarra sortu duen artista da; espazio horretan elkarrekin bizi dira bi hizkuntza: bere lurrarekiko erreferentziak bata, eta munduari irekitakoa bestea. Biak nahasian, iraganeko eta etorkizuneko umorez.



Jokin Mitxelena

Jesús Lucas da hala prentsan nola haur eta gazte literaturan lan egin duen beste profesioletako bat. Bere ibilbide oparoan liburu zerrenda luzea argitaratu du. Zuribeltzeko bere irudiak nabarmenduko nituzke, maisutasun handia lortzen baitu horietan. Laurogeiko urteetan beste marrazkigile handi bat agertzen da Euskal Herriko ilustraziogintzan, Jokin Mitxelena. Aurreko egileek bezala, trebetasun handia erakusten du komikian, aldizkari ezberdinetan ikus daitekeenez. Marrazkiarekin duen abilezia ondo isladatzen da zuribeltzeko bere edozein ilustraziotan. Honi, kolorea erabiltzerakoan duen sentiberatasuna gehitu behar zaio. Gure argitaletxeetan eta Alemanian –non bizi eta lan egiten duen 1995az geroztik– dago banatuta bere lana.

Bada beste ilustratzaile bat ere ilustrazioetako asko kanpoan dituena, Ingalaterran hain zuzen ere. Angel Domínguez da. Bere ezaugarrietan nabarmentzekoa da lortzen duen errealismo maila, animaliei eta oro har naturari buruzko liburu zoragarriak ilustratzeko aukera eman diona. Formato handia merezi duen profesioletako bat da; emaitza beti izango da bikaina.



Luis Alonso

Luis Alonso eta Jose Tellaetxe diseinugile grafikoak dira. Marrazkigile zoragarriak dira biak, haur eta gazteentzako testuetarako beren ilustrazioek espazioa eta kolorearen trataera zaindua erakusten dute. Teknika ezberdinak erabiliz lan egiten dute, emaitza onekin beti.

Diseinuaren barruan Asisko Urmenetaren lana sartu behar da. Bere txarteletan euskal mundu tradizionalaren erreferente garbiak daude. Pertsonaien ezaugarrietan oso argi ikusten da hori, baina pertsonaia horiek konposaketan banatzeko modua guztiz berria da. Bere marrazkietan leerroak eta koloreak bat egiten dute indar handiko irudiak lortuz.

Mikel Valverde da haur eta gazte literaturari gehitutako azken ilustratzaileetako bat. Bernardo Atxagaren zenbait liburuk bere ilustrazioak daramatzate, ondorioz leku nabarmena du Euskal Herriko ilustraziogintzaren panorama berrian. Bere marrazkien osagaiek samur, sinpatiko eta

↪ Hizpide ↪



Jokin Mitxelena



Jon Zabaleta



Absurde (Asisko+Marko)

hurbileko bihurtzen dute emaitza. Haurren mundura hurbildu eta aldi berean helduen gustuko den ilustratzailetako bat da.

Angel Domínguez, Luis Alonso eta Jose Tellaetxeren argitalpenekin batera sartu nintze ni ere ilustrazioaren munduan. Baina denborak eskatzen duen ordena hautsita, Euskal Herriko ilustraziogintzaren historia labur hau isteko, gazteagoak diren bi emakume ilustratzailearen lanekin batera komentatuko dut nire lana: Agurtzane Villate eta Elena Odriozola.

Pintura eta grabatutik ilustraziora pasatu nintzen. Hamar urtez baino gehiagoan, profesional eta pertsonalki miresten ditudan egileen testuak ilustratzeko aukera izan dut, Seve Calleja, Mariasun Landa edo Juan Kruz Igerabide esaterako. Testu liburuetan ere marrazki asko utzi ditut, nire lankide batzuek bezala, baina ipuinetan konta dezakegu gure




Mikel Valverde

↪ Hizpide ↪



Alvaro Matxinbarrena



Agurtzane Villate

istorioa irudietan, idazlearenaren parean joan dadin utzi. Ekidinezina da norberaren estiloak bilakaera izan dezan, baina beti mantentzen da zenbait ezaugarri; niri dagokidanez, xehetasun txikiekiko eta giro magikoe-kiko gustua. Diseinu grafikoak eta collageak kolorearen beste erabilera bat egiten uzten didate, baina dirudienez tresna berri hauek eta akuarelek bizikide izan beharko dute.

Dekorazio eta publizitatearen mundutik iritsi zen ilustraziogintzara Elena Odriozola. Testu liburu eta ipuin zerrenda luzea du. Oso modu finez lantzen du lerroa, ziurtasunez darabilena, mugimenduz betetako formak sortuz. Trebetasun handiz batzen ditu akuarela-atzealdeak eta marraztutako formak. Testuak ezkutuan duena irudi xumearekin kontatzeko abilezia handia du.

Azkenik, Agurtzane Villateren lana azalduko dut. Elena Odriozola bezala, mendeko azken hamarkadan hasi da argitaratzen. Lehen irakurketan bere irudiak oso deigarriak gertatzen zaizkigu eta poliki-poliki aurkitzen dugu zergatia. Zati ezberdinez konposatuak daude, horietako bakoitza bere-berea duen koloreak betea. Badirudi elementuak isolatuta daudela, baina badute osotasun bat, hasieratik somatu duguna. Diseinuari hurbileko zaion hizkuntzaz antolatzen ditu espazioa eta koloreak.

Euskal ilustratzaileen artean, badira beste profesional batzuk ere, berriki agertu direlako, komikigile direlako edo argitaratuta lan gutxi ditzutelako, hemen aipatuak izan ez direnak. Hauek dira batzuk: Jose Belmonte, Xabier Erostarbe, Iñaki Martiarena, Pedro Oses, Juan Ignazio Mendizabal, Luis Astrain eta Alvaro Matxinbarrena.

Haur eta gazte literaturak, eta honekin batera ilustrazioak, denbora gutxian egin dute Txikik urratutako bide luzea. Argialetxe, idazle, ilustratzaile, liburu-saltzaile eta profesionalak ahalegina egin dute mende berri honetan euskal ilustratzaile eta idazleez hitz egitea amets bat izan ez dadin. Ilustratzaileok, Ilustrazioaren Areto honetan gure lana erakutsiz, jakin gabe, Asociación de Artistas Vascos delakoa eta gure lehen ilustratzailea omentzen ari gara, gure historiaren parte baitira.

(Jon Suarezzen itzulpenak)

Elena Odriozola

